

TOKIKOM Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria • 2016ko ekaina • 316. alea

IBAIAREN HISTORIA Herritarren memorian



TXOKO
KAFETEGIA

Eguneko menua, razioak,
plater konbinatuak,
hanburgesak, ogitartekoak,
gosaria, pizzak...

**Enkarguak
egiten dira**

Kalebarreneko
kale kantoian
Tel. 943 75 17 89

giltzak SEGURIDAD

Segurtasun handiko ate
berriak betiko
profesionaltasunarekin.

¡Zatoz eta informa
zaitez!



www.innmotion.es/puertasdeseguridad

Eibar, Arragueta 3

943 70 13 91

*baso garbiketak
eta entresakak*
zortzi laguneko taldea
zure zerbitzura


SUMA *basolanak*

mug. 635 71 34 08



AURREZTU ENERGIA

EGUZKI PLAKAK eta
AEROTERMIA SISTEMA
Berotu ura eguzki izpiekin
edo airearekin



fontanería
San Andres
iturgintza

Konfidantzaren bermea

GALDARAK
Biomasa, egurra...



ITURGINTZA
Zaindu ur kontsumoa



Begiratu eskaparatea Santa Anan

Errabal 2, behea • 943 75 16 46
639 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com

Bizipoza

Askotan ez da erreza izaten bizipoza zer dan azaltzia. Danok sentidu izan dogu noizbait eta samur ezagutzen dogu bestiongan be. Danok bizi nahi dogu pozik eta horren atzetik emoten dogu azkenian geure bizitzia. Zoriontsu bizi nahi dogu, baina zoriontsuak gara? Zoriontsua naiz?

Galdera hori danok egiten dotsagu geure buruari inoiz. Ez dakitt gero tarte haundirik emoten dotsagun hori sakonago aztertziari. Nik neuk behintzat urte askuan ez notsan lekutorik be eskeini. Arrapaladan bizi nintzan lana, ardurak eta bestelakuekin tartetxo danak betez. Gaizki ez nintzan bizi, egixa esan, baina askotan etortzen jatan burura galderia, ia benetan nik nahi nebana egiten ete nenbilen ala inertziak bizi ete nintzan bizitzia ganoraz oratu bare. Baina trena ez zan geratzen eta erantzunak beti aurreragorako, geroko... Beti "premiña" haundixaua zeukan beste zezek horrek baino.

Berrogei urtietako krisialdixa izango zan akaso, batek daki. Egindako bilaketa desberdinetatik ibilitako bidiak ez ninduela zihero betetzen ikustia, behar bada. Edo dei bat... Kontua da erritua mantsotzen hasi nintzala, buruari bueltak emoten, eta, batez be, neure barrura begiratzen. Ni neu zein naizen, neure buruari leiala izateko zela bizi biharko nintzaken eta barrutik pozik eta bakian bizi izateko zela jokatu biharko neuken.



Mikel Santiago

“Danok bizi nahi dogu pozik eta horren atzetik emoten dogu azkenian geure bizitzia. Zoriontsu bizi nahi dogu, baina zoriontsuak gara? Zoriontsua naiz?”



P.G.

Hor azaldu zan nere alde espirituala, eta zergaittik argi ez esan, Jaungoikua. Egixa esan beti egon da presente nere bizitzan eta uste dot inoiz ez dotela ezkutatu nere kristautasuna. Baina egixa be bada urte askotan elizatik aldendu samar bizi izan naizela.

Berriro elizara gehixago hurreratzen hasi nintzan, irakurtzen, ikasten... Umetan Arantzazun ikasi izanagaittik edo, frantziskotarrengana hurbiltzen hasi nintzan, ixa konturatu bare, modu naturalian, lanian eta ardura politikuetan murgilduta nenbilen bittartian. Hola jun zan Jaungoikuaren presentzia nere barruan bihiagotzen eta hola sortu jatan hurrengo galderia: berrogei urte ingurukin badaka zentzua frantziskotar izan nahi izatiak?

Galdera horrerri erantzun nahixan juan zan urtia Gasteizko frantziskotarren etxian emon neban eta oin Giletan (Valentzia) nago, Santo Espiritu del Monte izeneko komentuan, frantziskotarrekin nobiziadutza egiten. Bila jarraitzen dot jakina, zorionaren eta bizipoz sakonaren bila, poliki-poliki bidia egiñaz, nere barruan sentitzen doten deiari jarraitu eta erantzuna emon nahixan, ni neu nai zenari eutsiz eta naizen horretatik. Eta gauzak ondo dirala abuztu bukaeran frantziskotar izateko pausua emongo dot.

Bake eta on, besarkada eta musu haundi bana danori eta bizi pozik!

Euskalzaletasunaren alde:



REGULACIÓN CHURRUARCI, s.l.



SORALUCE

Pil-pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldizkariako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa Telefonoa: 943 75 13 04 e-maila: aldizkaria@pilpilean.com
Erredakzioa: Egoitz Unamuno eta Gaizka Azkarate Zuzentzailea: Leire Ginea Publizitatea: Gaizka Azkarate Diseinua: Iñigo Urribetxebarria Maketazioa: Oier Larreategi Inprimategia: Gertu Koop. Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale I.Z.K.a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIALA



SORALUCEKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Gutunak

Danborradaren Oharra

antolakuntza
batzordea

Danborradako batzordeak jendea animatu nahi du ekintza horretan parte har dezan, eta entseguen berri ematen du: astearteetan eta ostegunetan, Frontoian, 20:00etatik 21:00etara. Lehenengo entsegua ekainaren 28an izango da. Bide batez, antolaketa lanetan jarduteko lagunak behar direla jakinarazten du batzordeak, eta herritarrak parte hartzera animatzen ditu.

Laguntzeko prest bazaude, edozein batzordekideri esatearekin nahikoa izango da.

Unai Ekainak 26an hauteskunde espainiarrak ditugula eta reflexio txo bat...

Larreategi

Abenduan 20an Ehbildurentzat bozka eskatzearekin batera Podemos zein IU alderdiei emaitza onak opatu nizkien... ez nik esandakoak sortutako eraginagatik, kar, kar, baina kriston emaitzak lortu zituzten bazter guztietan.

Oraingoan biak bateratuta doaz gainera beraz pentsa daiteke orduan lortutako emaitzak gainditu ditzazketela.

Zer panorama aurkitzen dugu ordea Gipuzkoan? Ba badirudi Podemos Gipuzkoan lehen indarra izango dela eta 2 kongresista eskuratuko dituela. EAJ eta EHBilduk aldiz bana ziur dutela diote inkestek eta bien artean beste bat egongo dela jokoan.

Irakurketa hortatik EHBildu eta Podemosen artean dudatan zaudeteno gongidapena egiten dizuet egoera hau kontuan izateko zuen bozka aukeratzeko orduan. Dudan zaudetenon botoak logika honen arabera eman ezkerko Madril aldaketa sozial eta politikoaren alde gipuzkoatik 3 kongresista behar 4 ere joan daitezkeelako baldin eta EHBilduk ere bigarrena lortzen badu.

Hortik aurrera bakoitzak egin dezala gogoak ematen diona!!

Harrien Bisita gidatua mendigaietan

lagunak

Zapatu honetan, goizean 10:00etan Karaketetik irtenda, bisita gidatua egingo dugu mendigaietan. Parte hartzea debaldekoa da.

Lan deialdia

Alkarri Elkarte

Alkarri elkarteak animazio soziokulturaleko monitorea ordezkatzeko lan-deialdia egin du. Uztailleko bigarren hamabostaldia eta abuztua egoitzako arlo psikosoziala kudeatzeko ardura izango du.

Ordutegia (astelehenetik ostiralera, 5 ordu egunean):

Goizean: 9:30-tik 12:00-tara

Arratsaldean: 16:30-tik 18:30-tara

Ikasketak:

Ezinbestekoak dira gizarte edota osasunaren eremuari lotutako ikasketak. Erdi mailako zikloa gutxienez.

Eskaera aurkezteko epea:

Ekainaren 20-tik 27-ra izango da (biak barne).

Curriculum Vitae-a bidali behar da alkarri@alkarri.org helbide elektronikora. Zuzenean aurkeztu nahi izanez gero Mesedeetako egoitzako harreraren auzueztu beharko da.

Bittartetik



Olatz
Sebäl

Nire herrixan aske maitatu nahi dot

Edozein herritarrek aske maitatzeko aukeria izan deiken nahi dot. Oinguan ISIS izan da, baina homosexualak zigortu, kondenatu eta erasotzeko badirudi pertsona ta kolektibo asko darella prest. Siglak aitzaki bat besterik ez dira, horren atzian babesten dira hiltzaile homofoboko batzuk. Erlijio sinismenen ta eskumako politiken atzian parapetatuta. 50 gay ta bollera bapatian, zelako hotzikara. Baina ezin dou ahaztu egunero darella askatsun sexualan kontrako erasuak. Heriotza forman daniari urrunegi daola sentitzen dou. Baina irainak, eraso fisikuak, bullynga, burlak, bizitza pertsonalian sartzia, askatasun sexualan aldeko pankartak kentzia... Hori gaur egun Plaentxin pasatzen da. Baina ez dirudi plaentxiarrei gehixen arduratzen dotsen gaixa danik. Orlandokua, bai gogorra. Ba jakizue gauza bat, gay askapen eta feminismuaganako pasibotasun horrek bermatzen eta babesten ditxu bestalako ekintzak. Noizian behineko sarraski hauen hazixa egunerokotasunian onartzen ditxugun txantxa ta mikroerasuetan dao. Ni ez naiz gehixau konplize izango. Ta oin segi komunikabidietan hiltzailian perfil psikologikua zelakua dan begira. Urrun daonaz arduratzia zelako erreza dan! Nere babes guztia Orlandoko biktimen familientzat, ta baitxa Plaentxin inoiz eraso homofoborik jasan daberen edozeinentzat. Ekainak 28ko kontzentrazinuan espero zaitxuztegu!

IZAGUIRRE
Igeltseritza

Eraikin berriak • Kalitatezko emaitza
Erreformak • Era guztietako igeltseritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913 • 649 867 289

ALKARRI
elkartea

www.alkarri.org
alkarri@alkarri.org 622 725 557

- Boluntarioen prestakuntza eta antolamendua
- Esku-hartze gerontologiko eta sozialen programen garatzea
- Esku-hartze psikosoziala egoitza eta eguneko zerbituetan
- Gizarte eta kultura animazio zerbitzu pertsonalizatuak

“Asierrek berak laguntzen digu aurrera egiten”

Asier Alonso Oregi (Olatz eta Manolo)
(Soraluze, 2011)



Asier, gurasoak aldamenen dituela.

Asierrek lau urte ditu eta urte hasieran leuzemia diagnostikatu zioten. Orduetik honako hilabeteak Donostiako ospitalean eman ditu gaixotasunaren kontrako borrokan. Joan zen astean etorri zen etxera baina infekzio arriskua dela eta, ezin izan du kalera irten.

Hasierako nahasmena gaindituta, tratamenduaren amaierako faseari ekiteko gertu dira Asier, Olatz eta Manolo. Azken hilabeteotan semearekin batera bizi izaten diharduten esperientzia kontatu digu Olatzek.

Noiz jakin zenuten Asier gaixorik zegoela?

Urtarrilaren 29an. Sudurretik odola botatzen hasi zen. Hasieran pentsatu genuen ohiko odol jariora zela, baina gehiagora egin zion eta azterketak egin ostean, jakinarazi ziguten leuzemia zeukala.

“Tratamenduak lau fase ditu eta uztailearen hasieran amaituko du hirugarrena”

Zela hartu zenuten berria?

Momentu horretan mundua jausi zitzaigun gainera. Gero, egun batzuetara, diagnostiko zehatza eskuetan hartuta, medikuekin batera jarri ginen. Lehenengo burura datorkizuna hezurmuinaren transplantea da, baina batzuek ez dute behar izaten eta hori da gure kasua.

Minbizia berak beldur handia sortzen du.

Bai. Hasieran entzuten duzunean minbizia eta kimioa, beti pentsatzen duzu txarrena, eta holako ume txikia denean min handiagoa ematen dizu. Baina gaur egun, gero eta minbizi kasu gehiago sentatzen dira. Ni indartzen naiz bera ikusita. Berak laguntzen digu aurrera egiten.

“Herrian kontaktua eragozteia ezinezkoa da eta oraingoz ezin digu arriskatu”

Orain arteko bilakaera zelakoa izan da?

Orain arte oso ondo joan da dena. Tratamenduak lau fase ditu eta dena ondo badoa, uztailearen hasieran amaituko du hirugarrena. Lehen aldiz ingresatu zutenetik joan zen atera arte barik egon da, hurreko familiaz aparte bestelako bisitarik jaso barik, isolatuta, eta hori oso gogorra da. Tarteka, baimena eman diotenean, atera izan gara Debara-edo, Soraluzera ez. Infekzio arriskua dela-eta, ezin du beste pertsonekin kontaktu fisikorik eduki eta ez zaio komeni jende asko dagoen lekuetan ibiltzea.

Porrotxen bisita ere jaso zenuten. Horrelakoek lagunduko dute...

Orduak bizkorrago pasatzen laguntzen du eta hori asko eskertzen da. Errealeko jokalaria etorri izan dira, boluntarioak païaso jantzita eta egunean ordubetez irakaslea etortzen da. Dena dela, joan

zen astean Gasteizko legebiltzarrean izan ginen beste ama bat eta biok, aislamenduko eremua handitu dezatela eskatzeko.

Minbizia duten umeen gurasoak Aspanogin batzen zarete. Aspanogik zer eskaintzen dizue?

Gauza asko. Aspanogik gela bat dauka gurasoendako, frigorifiko, dutxa eta abarrek. Bazkaltzeko bonoak banatzen dizkigu eta psikologoa eta asistenta soziala ere eskaintzen ditu. Boluntario-sarea ere badute eta umeekin jolastera etortzen dira. Eskerrak horri. Orain, gainera, etxebizitza bat lortu dute Donostian gurasoek erabil dezaten. Ama talde bat ere sortua dugu.

“Gasteizko legebiltzarrean izan gara aislamenduko eremua handitu dezaten eskatzeko”

Ogitartekoaren ekimeneko dirua Aspanogira bideratuko dute. Zer iruditzen?

Oso-osu ondo iruditzen zaigu eta asko eskertzen diegu laguntza, ez Asierren-gatik bakarrik, Gipuzkoan gure egoeran dauden ume guztiengatik. Minbizia pozarekin eta jai-giroarekin lotzea oso ondo dator eta eskerrak eman nahi dizkiegu Bolia, Arrano eta Intxixu tabernei, Mendizabal okindegiari, dultzaineroei, “Arritxa” musika jartzaileari eta laguntzen jardun zuten herritar guztiei.

Batzoki Jatearen plazera, bertatik bertara

egutako menua
astebaruetan
karta eta raziok

ogitarretokak eta
hamburgerak
enkaragu bereziak

familia eta
lagun arteko
barkariak

Erreserbak:
943 75 20 16

Kontulan
aholkularitza
ABOKATUAK

Errenta aitortpenak • Administrazio lanak • Trafikoko burokrasia
Lan-arloko aholkularitza • Enpresen konstituzio/disoluzioak • Kontabilitatea

Santa Ana 13 - 1. etk. 20590 Soraluze • Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82

Futbol taldeak garagardo-jaia antolatu du



OSTIRALA, UZTAILAK 1
19:00-01:00
19:30EAN TRIKITILARIAK

LARUNBATA, UZTAILAK 2
13:00-16:00 ETA 19:00-02:00
22:30EAN KONTZERTUAK
GARRAXI ETA THE OSO BASATIS

Garagardo-jairen kartel iragarlea.

Uztailaren 1ean eta 2an, Soraluze futbol taldeak antolatuta, garagardo-jaia egingo dute Plaza Zaharrean. Bost garagardo-mota eskainiko dituzte (lau interna-

zionalak eta bat limoizkoa) eta jatekoa ere bai: txerri-ukondoa eta saltxitxak. Lehenengo egunean musika eskolako trikitilariak girotuko dute gunea eta bigarren egunean, Garraxi eta The Osobasatis herriko musika-taldeek joko dute, gaueko 22:30etik aurrera. Guztira 50 boluntario beharko dituzte jai-gunean lan egiteko eta itxaropena dute jokalaria eta gurasoen artean nahikoa jende batzea. Garagardo-jaian ateratako irabaziak datorren denboraldian kluba finantzatzeko erabiliko dira.

Batzar nagusia Txokoan

Futbol-taldearen batzar nagusia egingo dute datorren eguaztenean, arratsaldeko 19:30ean, Txoko kafetegian. 18:45 etan Ezoziko taberna kudeatu nahi dutenek izena eman eta baldintzak jakiteko aukera izango dute.

Ezozibideko balkoia irabazle

Maria Lourdes Vazquezen balkoia irabazi du Udaleko Ingurumen Batzordeak antolatutako balkoien lore lehiakeren lehenengo saria (100 euro). Bigarren saria, berriz, Santa Ana kaleko Cristina Arizagaren balkoia irabazi du (50 euro). Lehiaketan 13 parte hartzaile izan dira guztira. Udalak eskerrak eman nahi dizkie parte hartzaile guztiei eta herritar guztiak animatu nahi ditu balkoia eta leihoak lorez edertzera.



Ertzaintzak oker aparkatutako autoak salatuko ditu

Udalak jakinarazi duenez, ekainetik aurrera Ertzaintza arduratuko da udaltzainak ez daudenean (astegunetan zein asteburuetan) oker aparkatutako autoak salatzeaz. Gidari askok asteburuetan autoak oker aparkatuta lagatzen dituztela-eta, herritarren kexa ugari jaso ei ditu Udalak azken hilabeteotan. Arazoari irtenbidea bilatu nahian, Udalak asteburuetan eta gauetan aparkalekuen gaineko kontrola egin dezan eskatu dio Ertzaintzari. Isunek ohiko kostua izango dute (40-200 euro), salaketak Ertzaintzak egin arren, isunak udaltzaingoak tramitatuko ditu eta.



FotoNotizia



Oso-osorik jan zen ogitartekoa

Joan zen zapatuan 25 metro luze zituen ogitartekoa jan zuten Etxaburueta kalean eta 800 pintxotik gora saldu ziren. Herritar asko hurreratu ziren Intxixu, Arrano eta Bolia tabernek Mendizabal okindegiarekin batera antolatu zuten ekimenera. Ogitartekoarekin batu zen dirua Aspanogi elkartera bideratu dute.

Armendi Jatetxea

Sukalde tradizionala, eguneko menua eta asteburuetan menu berezia

Etxeko souflera

Tel.: 943 75 10 02



Hortz klinika

Javier Alonso
Mediku Estomatologoa
K.Z. 20.000.434

Katia Gustino
Odontologoa
K.Z. 48.001.541

Errabal 1 - Tel.: 943 75 16 13

27 urteko esperientzia

Minik gabeko anestesia, odontologia orokorra, protesi finkoa eta mugikorra, odontopediatria, ortodontzia, implanteak, estetika...



Domekan hauteskundeak

Espainiako kongresurako eta senaturako hauteskundeak egingo dira domekan. Boto-kutxak kiroldegian jarriko dira, ohiko moduan, eta goizeko 09:00etatik arratsaldeko 20:00ak arte izango dira zabalik.

Gogoan izan herriko botoen kontaketa amaitu bezain laster, informazio jakingarri guztia Plaentxia.eus-en argitaratuko dugula.

Jose Berrueta hil da

Jose Berrueta ekainaren 7an hil zen 94 urte zituela. Berrueta oso pertsona ezaguna izan da herrian, batez ere, argazkilari eta prentsarako kronikagile moduan egin duen ibilbide oparoarengatik. Hemezortzi urterekin hasi zen argazkilaritza munduan eta oso berandura arte jarraitu zuen herriko pertsona eta ekimenak erretratatzeko. Kronikagile moduan ere 44 urtez jardun zuen, Diario Vascon, 1948tik 1988ra bitartean. Kirol munduarekin ere harreman handia izan zuen, urte askoan arbitro izan baitzen eta Soraluze futbol-taldeko lehendakari ere bai.



Hezkuntza Planak koordinatzailea izango du

Udalak jakinarazi du datorren ikasturtean Hezkuntza Plana garatzeko koordinatzailea kontratuko duela. Hezkuntzako eragileek maiatzean aurkeztu zuten egitasmoa, bere baitan bederatzi proiektu jasotzen dituena, eta hori garatzeko dinamizatzaile-lanak egingo lituzkeen pertsona baten dedikazioa eskatu zuten, hau da, Udalari hezkuntza-teknikari baten postua sortzeko eskaria egin zioten. Udalak adierazi du plaza finkorik sortzeko aukerarik ez dagoela, baina datorren ikasturterako aldi baterako teknikaria kontratatuko duela.

Bederatzi proiektu

Hezkuntza Planak jasotzen dituen bederatzi proiektuak ondorengoak dira: eskolara oinez joatea, behar bereziak dituzten umeei arreta eskaintzea, behar ekonomikoak dituztenei dirula-guntzak ematea, herria ezagutarazteko unita-



Ikastetxetik Ezozira bidean, ikasturte amaierako egunean.

te didaktikoak prestatzea, hezkuntzako metodologiaren inguruan hausnartzea, urte osoko formazioa eskaintzea, sormen tailerra sortzea, lau urtean behin Hezkuntza Plazara ateratzea eta "haurren herria" proiektua bideratzea. Plana 2016an hasi eta 2020ra bitartean garatzea aurrekusten da.

Auzokoak eta berbalagunak

Auzoko eta Berbalagun egitasmoen ikasturtea amaitu da. Honenbestez, euskarara hurreratzeko eta euskara praktikatzeko aukera ematen duten egitasmoen inguruko baloazio positiboa egin du Pil-pileaneko Maialen Elizburu teknikariak: "Auzokon bi taldek jardun dute eta jatorri ezberdinetako pertsonak euskararen bitartez elkar ezagutzeko aukera izan dute. Berbalagunean hiru talde egon dira martxan eta kide gehiago ere animatu dira egitasmoan parte hartzera.

Ikasturteari amaiera emateko Oñatira eta Egotza baserrira irteerak egin dituzte, eta datorren ikasturtea urrian hasiko dute.



EUSKO LABEL

Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Denda

-TIENDA ESPECIALIZADA-

Favier Alberdi

ERRABAL KALEA, 24
TEL. 943 75 19 32

KLB6

Kalebarran 6
943 57 74 25

Mutlen eta nesken moda gaztea

 KLB6
info: Berru Jentilak



BEHERAPENAK
%30a ekainaren 27tik aurrera

BOLIA



TABERNA

Pintxoak
Ardoak
Kombinatuzak
Gazte-giroko festa

Tel.: 943 02 95 02



IBAIAREN MEMORIA BERRESKURATZEN

Ibaian arrainak, txalupak eta gu genbiltzaneko garaia

ARGAZKIAK ETA TESTUA E. UNAMUNO

Alkarrekineko Ibaiak eta mendiak lan-taldeak sustatuta, ibaiaren historia soziala jasotzeko egitasmoa jarri dute martxan. Helburua hau da: "ibaia herrian izan duen garrantzia jasotzea eta herritarrei ezagutaraztea; batez ere, belaunaldi gazteenei, etorkizunean ibaiak gure gizar-tean bere lekua berreskuratu dezan".

Elkarrizketak eta dokumentala

Irailek hona, gaztetan ibaiarekin harreman estua izan zuten hamalau herritar elkarrizketatu dituzte; eta udara bitartean, beste lau elkarrizketa egiteko asmoa dute. Leire Gineak eta Tere Guentxeak dihardute elkarrizketatzaile-lanak egiten eta Pil-pileaneko Gaizka Azkarate, ikus-entzunezko teknikaria, arduratzen da dena behar bezala grabatzeaz. Gero, grabatutako elkarrizketekin eta jasotako argazkiekin, ibaiaren inguruko dokumental bat egingo dute, datorren neguaren amaieran edo udaberri aldean estreinatuko dutena. Ziur daude dokumentalak sekulako arrakasta izango duela, "ibaia inguruko kontuek interes handia pizten dute herrian; ez da harrizkoa, ibaiaren erdi erditik pasatzen da eta sekulako garrantzia izan du herritarren bizimoduan".

Ibaia bizimoduaren erdigunean

Adineko jendeak kontatutakoaren arabera "argi ikusten da, orain dela hamarraldi batzuk ibaiaren herriko bizimoduaren erdigunea zela: ibaian arropa garbitzen zuten; arrantzan egiten zuten, batzuk txalupetan; zenbaitzuk arrain haztegitxoak zituzten; ibaiaren hainbat tokitan bainatu egiten ziren adin guztietako herritarrak, igerian ikasten zuten eta jolas egiten zuten - ahate harrapaketan, kukainan, trainera lasterketetan, hidrozikloan...-, uraren indarra aprobetxatzen zuten zentral hidroelektrikoen eta erroten bitartez...". Fabriketatik ibaira produktu kutsagarriak isurtzen hasi zirenean hondatu zen mendetan zehar iraun zuen oreka, gizakiaren eta naturaren arteko hartu-eman. Oreka hori galdu aurretiko bizimoduaren testigantzak



Federiko Eguren elkarrizketa egiten.



Orain arte elkarrizketatutako herritarrak.

jaso eta zabaltzea da Alkarrekineko lantaldearen helburua, etorkizunean oreka berreskuratzeko lagungarri izango delakoan.

Elkarrizketatuak

Gaur gaurkoz honako hauek elkarrizketatu dituzte: Txistu-Pedro Jose Etxeberria, Santos Elizburu-Juan Luis Ugalde, Federiko Eguren, Mari Karmen Oñate, Benita Galarraga, Agirrebeisti baserriko

Josefa Ansola, Atxito, Axpe-Gabilondo, Barruetabeña-Txaro Maiztegi, Txiston aita. Egunotan beste herritar batzuekin ere ari dira hitzorduak lotzen.

Dena den, herritarren batek ibaiaren inguruko informazio interesgarriak baleuka (kontakizun, argazki...), jarri kontaktuan arduradunekin eta gustura jasoko dituzte ekarpenak.

“Aittakin peskara juatia jaixa zan neretako”

Federiko Eguren
(Soraluze, 1932)



Federiko Eguren Igarateko etxean bizi izan zen gaztetan. Igarateko etxea Sagar Errekarako sarbidea dagoen lekuan zegoen; Kainoi fabrikako “direktorearen” etxearen. Federikoren aita, Andres, direktorearen gidaria zen eta denbora zue-
nean arrantzan jarduten zuen etxe on-
doko ibaian. Andresek egurrezko txanala (txanala) zuen, berak egina, “Igarate” ize-
nekoa eta hura erabiltzen zuen ibaiaren
alde batean eta bestean arrantzan egi-
teko. Federikok gogoan du arrantzarako
apareju mordoak zeukatela etxean eta
“familiako sekretua”; aitak berakegindako
arrain haztegi txikia. Aitarekin arrantzara
joatea jaia zen Federiko txikiarendako,
gozamen handia. Grabazioan jasotako
zenbait pasarte ekarri ditugu hona:

Arrantzarako aparejuak

“Mutikotan ibaixan asko ibiltzen nintzan,
porke, aitxak eukan afiziño haundixa

peskarako. Ta harek zeukazen, ba, tres-
nak, aparatua, eee, milla: eukazen bu-
troiak, euskazen kañak, eukazen sariak,
eukazen... danetikan, txingak... eta ha-
ren atzetik, han hasi nintzan ni; batian
kañatxo batekin, hurrengo botellekin...
Gero, ba, pixkat nausitu nintzanian, 10-14
urtekin, ba, mobimentu gehixau...”

Aberatsa arrainetan

“Errekia aberatsa zan, oso aberatsa zan.
Arraina euan asko, han behian. Presapian
bertan bakarrikan, eee, neguan, eee,
bueno! Danetikan: euan hasteko, angir-
rak. Aingira-leku ona zan, presapera jote
eben asko, jateko asko eukiko ebelako,
dana dala... Gero, barbua... barbuak
eren, milla. Gero eren loiñak. Gero eren
eskailuak. Gero eren sarbuak. Gero eren
kangrejuak, zigalen neurrikuak, bel-bel-
tzak. Ta harek jote eben, uda partian,
amorraiñak sobre todo, jote eben sagar

errekako erreka muturrera, harek ur gar-
bixa ekartze eban, ibaixak ez hain gar-
bixa...”

Arrain-haztegi txikia

“Etxe handixa zan Direktoriana, ta hu-
rringo etxia zan garajia. Ta gu garaje-
ko etxian gainian bizi ginan. Arrainakin,
gure aitxak ein eban barrika bat jirau,
baina barrika bat ez oinguan moduan
metalezkoa; egurrezkoa. Orduan meta-
lezkorik ez zan... Ta hari eiñ zotsan ura
ipini Sagar Errekatikan, ur korronta ipini,
etxian barrutikan. Ta harrapatze eban-
kin, ze itxe eban? barrikara bota, arraina
barrikara botatzen zeban”.

Aitaren txanala

“Horretarako, einda eukan txanala aitxak,
ibixan. Txalana ibixan ibiltzeko. Harekin
txanalakin manejatzen zitxuan baztar
guztiak. Txanalakin itxen zeban arran-
tzan, ta eukan esprabela (sare bat). Sobre
todo neguan, neguan arrainak itxen dau
(...) potzu haundixetara, ur haundixeta-
ra joan... ta hortxe botatzen zeban...
inoiz, kale galantak be bai, ta bat bera
hartu ez. Ta, hurrengo, ba tokau, etara
esprabelatikan ta barrikara!”

Txintxilak harrapatzen otarekin

“Aitxak otak ekarri menditxikan, ipini
pisua otari (ota zati haundixa, e?), lotu
txanalari, han eukazen heldulekuak-eta,
han lotu eta haura uretara bota, otak,
pare bat. Txanalari luzeeria, hiru metro
eukazen, ba, metro t’erdira hola. Ta, ba-
dakizu zetarako? Kiskillak harrapatzeko.
Hori, entzun dozue sekula? Kiskillak. Ta
ze itxe eban kiskillak? Kiskilla otan sar-
tzen zan, ota artian, gordelekua izango
zan berandako. Ein bihar izaten zan, har-
tu eta etara segiduan, ta astindu gero...
ez dakit nondik etortzen zian, hori mila
bider esan dot eta inork ez zotan sinis-
tu be itxen! Nik uste itsasotik etorriko
zirala...”

IGARATEKO TXANALA



Federikoren aitaren txanala “Igarate” izen eta guzti-
da 1944-45 urte inguruan ate-
ratak argazkian ageri dena. Dagoeneko desagertuta dagoen Iribeko presan ageri
dira: Federiko, Andres (aita) eta Lucia eta Maria Teresa Eguren. Garai hartan herriko
presa gehienetan zeuden txanalak; gehien bat, arrantzarako erabiltzen ziren.

IBAIAREN GARBITASUNA

Baina gaitzezke?

Azken urteotan, ibaiko ura garbiago dator, gardenago, eta, noiznahi, arrain txikiak ikusten dira multzoan. Haien aldamenean neska-mutiko gaztetxoak ere bai, gero eta sarriago, piraguetan edo piragua barik. Baina zenbateraino dago ura garbi, bainatzeko beste bai?



Bi gaztetxo piraguetan.

Jon Ugarte oñatiarra basozaina da, Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurumenaren Garapeneko basozaina eta erreken eta arrantzaren kontrolaz arduratzen da, hain zuzen ere. Bere esanetan "Deba ibaiko uraren kalitatea asko hobetu da azken urteotan, batez ere, saneamenduari esker eta enpresek egin duten lanengatik".

Hobekuntza nabaria baina hobetzeko asko

Ibaien osasunaren adierazgarri nagusienetakoa bertan bizi diren animaliak dira, alde horretatik, azken urteotan, asko ugaritu dira arrainak: "amorrainak, eskailuak, barbuak, loinak... ikusten dira, inguruko erreketatik ibaira mugitu direnak". Arrainekin batera, hegaztien populazioak ere gora egin du: "Badira lertxunak edo gartzak arrainak jaten dituztenak, eta horiek hasi dira gero eta gehiago ikusten. Ubarroiak, ur-zozoak, martin arrantzale batzuk, buztanika-

rak... Horiek bai dira ibaiaren osasun hobearren adierazgarri".

Hala ere, Ionon esanetan, oraindik asko dago egiteko, "Antzuola eta Elgetako ur zikinak Mekolaldeko kolektorerara bideratu barik daude, baserrietakoak ere bai eta noizean behin isurketa handiak gertatzen dira oraindik, batez ere, Bergaran". Gainera "Deba ibaia da munduan oztopo gehien duenetakoa (presak...); 200 bat ditu".

Bainurik ez, piraguak bai

Ibaiko ura bainurako bezain garbi dagoen galdetuta, Ugarteren erantzuna argia da: "Eusko Jaurlaritzako Urak Agentzia da bainua baimentzeko eskumena duena eta honek ez du baimenik eman. Ura oraindik ez dago bainatzeko bezain garbi".

Iritzi berekoa da Iker Aldazabal alkatea ere. Hori bai, "Azken hilabeteotan piraguen inguruko ekimenek izan duten arrakasta ikusita, Udaleko Kirol Batzor-

deak bigarren eskuko piraguak erosteko aukera aztertzen diharduela jakinarazi du. Txoko pareko ur-zikinen desagueaz galdetuta, Udalak adierazi digu ur-kontsortzioaren arduradunekin berba egin duela baina kontsortzioko arduradunen esanetan desagueak ez ei du gutxieneko "kota" betetzen eta oraingoaz, arazoa bideratzeko aukerarik ez ei duten ikusten.

Bestalde, Udalak eta Alkarrekineko Ibaiek eta Mendiak taldeko kideek Sagar-errekako potzurabidea egokitzekeo proiektua gauzatzeko aukerak aztertzen dihardute. Ziurtatzerik ez dagoen arren, ez dute baztertzen lanak udako oporrak aurretik martxan jartzea.

ISURKETEKIN: 112

Isurketaren bat gertatu dela ikusiz gero, oso garrantzitsua da 112ra deitzea. Dagozkiona joango da ura aztertzeri eta arazoa zein den ikustera.

Motzean

Atxotegi eta Bolinaga txapeldun

Debarroko txapelketa irabazi du Sorraluzeko bikoteak, finalean Perez eta Iraña 22-6 mendean hartu ostean. Atxotegi eta Bolinagak ez dute partidarik galdu txapelketa osoan zehar eta merezitako txapela jantzi zuten. Gainera, Aitor Atxotegik finaleko jokalaria onenaren saria jaso zuen.



Gimnasia erakustaldia

Herriko eta Eibarko gimnastek erakustaldia eskeini zuten kiroldegian. 5 eta 20 urte bitarteko neskek parte hartu zuten zapatuko jaialdian. 75 kirolarik, tartean Irene Perez Euskadiko txapeldunak, 46 erakustaldi eskeini zituzten.



Final-erdiak zapatuan

Asier eta Iñakiren omenezko pelota txapelketako final-erdiak jokatu dira zapatuan 10:00etatik aurrera. Calles-Fernandez eta Arrillaga-Bollar, eta Varela-Albisua eta Oñate-Ojea izango dira kanporaketak. Saldeta eta txorizoa egongo da. Finala uztailaren 9an izango da 19:00etan.

“Amets bat? Lehen mailan jokatzea”



Haritz Albisua

Haritz Albisua (Sorraluze 1992)

Lehen urratsak Eibarren

11 urterekin hasi nintzen Eibarren jokatzeko. 19 urterekin lehen taldean aurre-denboraldia egiteko aukera izan nuen 2. B mailan.

Hirugarrenetik 2.B mailara

19 urte nituela sentitu nuen urte batzuetan futboletik bizitzeko aukera izan nezakeela. Elgoibarren eta Portugaleten jokatu nuen hirugarren mailan eta azken bi urteak Barakaldon 2.B mailan.

Lesioen ametsgaiztoa

Belauna hautsi nuenean bizi izan nituen momentu gogorrenak.

Denboraldia behetik gora

Lesioak medio ez nuen denboraldia ondo hasi, baina martxa hartu ostean, taldearentzat jokalaria garrantzitsu bilakatu arte.

Erregearen kopan Valentziaren aurka

Hirugarren fasera heltzeko helburua lortu nuen Barakaldorekin eta lehen mailako Valentziak kanporatu gintuen. Mestallan jokatzeko esperientzia berria izan zen, beste dimentsio bateko futbola.

Bigarren A mailarako play-offa

Lleidak zapuztu zigun igooeraren ametsa. Igoera fasean ez genuen lortu urte osoan erakutsitako maila ematea.

Jokalaria onenaren artean izendatua

“Hablemos de futbol” webgunean Bigarren B mailako bigarren erdilari onena izendatu ninduten zaletuek. Lanean jarraitzeko motibazio gehigarri bat izan da niretzat.

Barakaldoko zaletuak

Oso gertu sentitzen ditugu eta eskertzen da herria taldearekin dagoela ikustea.

Etorkizunera begira

Barakaldorekin kontratua amaitzen zait eta aukera onenaren zain nago orain. Bigarren A mailara saltoa ematea izugarria litzateke baina ez da erraza.

LABURREAN

Amets bat: Lehen mailan jokatzeko


Izen goitia: “El pitbul” Albisua

Jokalaria izaera: Langilea

Maniarik: Zelaira eskumako hankarekin sartzea, marra zapaldu gabe

Futbolari kuttunena: Zinedine Zidane

Entrenatzaile bat: David Movila eta Gaizka Garitano



EDURTZA
taberna

Ogitartekoak, razioak,
hanburgesak, pintxoak
eta pizzak

Patata tortillak egiten
dira enkarguz

Santa Ana 18
Tel: 943 75 13 83



MENDIZABAL
okindegia

**Ogia - Prentsa
Gosariak**

Astleheneretik ostiraloraz:
08:00 - 13:15 eta 17:00 - 20:00
Larunbatak eta igandeak:
08:00 - 13:15
Kalebarren 10 - Tel.: 943 75 13 99

Aguxtin Alkhat Gaztelupeko terrazan



Aguxtin Alkhat taldearekin.

Gaztelupe tabernak musika kontzertuak antolatzeari ekingo dio berriz. Ekainaren 30ean, egunean, iluntzeko 20:00etan, Aguxtin Alkhat abeslari hietarrak (Baxe Nafarroa) terrazan joko du. Alkhatek bere musikarekin 70ko ha-

markadako AEBtako rock eszenari egiten keinu dio, folk tradizionala eta rock kutsuko kantagintza uztartuz. Azken urteotan, zuzeneko kontzertu asko eskaintzen dihardu, Anari eta Gorka Urbizu moduko musikariekin batera. Bi disko ditu kaleratuak 'Haizeen meneko' eta 'lhes egin'.

Uztailen poesia eta musika

Uztailerako programatu dituzten beste bi emanaldietan poesia eta musika uztartuko dira, sortzaile gazteen eskutik. Uztailaren 7an, egunean, arratsaldeko 20:00etan herriko sortzaile gazteek osatutako *Mantazpitik* poesia eta musika ikuskizuna eskainiko dute eta uztailaren 17an, domekan, eguerdiko 13:00etan Izaro Andres, 21 urteko abeslari mallabiarrek kantatuko du.

Motzean

Fan & Go San Andresko jaixetan

Fan & Go talde zarauztarrak giro-tuko du aurten San Andresko jailetako zapatu gaua. Aurretik, arratsaldeko 19:00etan, Asier eta Iñakiren omenezko XV. pelota txapelketaren finala jokatuko dute, aurten lehen aldiz, San Andresko frontoian. Afaria berriz, gaueko 21.00etan izango da Goikoetxea eta Gisasola trikitilari gazte eibartarrek alaituta. Afaritarako lekua egunean bertan hartu daiteke eta, aukeran, ogitartekoak ere izango dira.

Hurrengo bi egunetan ohiko egitaraua izango da:

Domekan: Iñaki Ruizen omenezko V. mendi-lasterketa, meza, puntako bertsolariak, trikitilariak, pelota partiduak eta umeendako zezentxoak.

Astelehenean: meza, umeendako jolasak eta Egaña eta Lizasok Laja eta Lutxurdiorekin batera alaitutako auzotarren bazkaria.

Ekaineko kultur-ekimenak argazkitan



Elizpe
Hortz klinika

Gare zeharritzaiek:
- Ortodontzia (buztolina)
- Implanteak

DOMINIKO BERRIKUEKETE
FINANTZAKETA ZURE NEKAZIA
KONPROBESORAK GAZTEAK AURRERATUTIA

MUTURILUA, PADI (hasurren arretarako hortz programari)

Tel: 943 75 25 67
Elizburu: 3 behia, Sorraluze

MABEL
ILEA PAINBEGIA


Ilearentzako keratina
tratamendua · Depilazioa
Ile-sustrairik gabeko
permanentea · Makilajea
Manikura erdiiraunkorra
Solariuma

Errabal 1
Tel.: 943 75 14 89


Zorion agurrak



Ana Gil
Ekainaren 2an. Zorionak!
Zuren lagun Begoñaren partez.



Iraia Intxaurre
Ekainak 9, 16 urte
zorionak pedorrira
muxusss pottoloss



Mireia Lamariano
Ekainaren 21ean 25 urte
Jarraitu beti bezain
umoretsu eta alai. Maite
zaitugu. Etxekoan partez.



Enara Garitano
Ekainan 9an, 7 urte
Zorionak bihotza!
Muxu bat etxekuen partez.



Irati Unamuno eta Enara Garitano
Ekainaren 10ean eta 9an 7 urte.
Zorionak bikote. Asko maitez zaitxuegu.
Muxu erraldoi bana etxekuen partez.



Zaloa Garcia Rodriguez
Ekainaren 24an, 8 urte. Mila kilo
zorion eta muxu haundi bat
etxekuen partez. Pila bat maite
zaitxugu. Jarraitu horrela sorgintxo.




Ferman Oregi
Uztailaren 2an. Jarraitu
pazientzia eukitzen eta ospatu
dezagun topera zure eguna.
Muxu bat etxekuen partez




Maddi Oregi eta Xiker Garro
Ekainaren 7an, 6 urte eta uztailek 15ean, 8 urte.
Segi horrelako momentu politik bizitzen!! Asko
maite zaituztegu. Etxekuen partez



Enaitz eta Iñaki
Ekainaren 4an 31 urte eta 6an 62.
Zorionak nere mutilak! Begonia.



Unax eta Aimar Igartua
Uztailaren 5ean, 4 urte. Muxu handi bat.
Amatxo, aitatxo eta etxekoan partez.



Koldo Arantzeta Goenaga
Ekainaren 6an, 7 urte.
Zorionak TXAPELDUN!!!!
Etxekuen partez muxu eta
besarkada mordoa



Isabel Gil Muñoz
Uztailaren 1ean, 46 urte.
Zorionak politt hori! Muxu
handi bat familiaren partez.
Asko gure zaitugu bitxi,
zoragarria zara!



Pakita Unanue
Ekainaren 29an, 88 urte.
Mila kilo zorion birramama!
Muxu pila bat etxekuen
partez baina bereziki Xuban
eta Saran partez!!!



Lide Sodupe Ostolaza eta Paule Oñederra Ostolaza
Uztailaren 1ean, 6 urte eta ekainaren
25ean, urtebete. Zorionak eta muxu asko
etxeko printzesei!



Jon eta Gaizka
Zorionak eta besarkada bat.
Etxekuen partez

Jaioberrriak



Marko Bernedo Uribe
Ekainaren 14an jaio zen.

Jaiotakoak eta hildakoak



Marko Bernedo Uribe



**Miren Aranzamendi Uriarte
Teresa Elorza Iriarte
Jose Berrueta Elizburu
Esteban Maitzegi Gallastegi**

**TXURRUKA
JATETXEA**

- Sukalde tradizionala
- Eguneko menua
- Asteburuetako menu berezia
- Karta

www.txurruka.com
Tel: 943 75 15 81

Wendata

Tel: 943 25 74 52 / 680 75 40 60

Enkarguak egiten dira
Eramateko prestatzen da
Menu bereziak enkarguz

Berezitasunak:
Ebean egindako
pizzapatak eta
patata frijituak



Argazkia: Elizarako eskailerak Galipot kaleraino heltzen zirenekoa. Iturria: Ana Maiztegi.

ba al zenekien...

Hiru mende behar izan zirela eliza eraikitzeko?

Ramon Leturiondo Altube historialari soraluzetarrak herriko parroquia-elizari buruzko artikulu interesgarria argitaratu berri du www.Sorapedia.eusen: "Soraluzeko arkitektura erlijiosoa: Parrokia-elizaren azterketa artistikoa".

Makina bat datu jasotzen ditu artikuluak, eta elizak erakusten dituen estilo desberdinen deskribapen bikainak eskaintzen dizkigu. Izan ere, hiru mende behar izan ziren Soraluzen, gaur egun, ezagutzen dugun parroquia-eliza eraikitzeko.

XVI. mendean hasi eta XVIII. mendeko azken elementu garrantzitsuen eraikitze-lanekin bukatu zuten eliza. Horrek ahalbidetu du elizak Aro Modernoan zehar garatu ziren estilo artistikoak barnebiltzea: gotiko gardun berantiarra, euskal gotikoa, barrokoa eta neoklasikoa.

Horrekin batera, nahiz eta haren aztarnarik ez den geratzen, egungo parroquia-elizaren leku berean aurretik beste eraikin erlijioso bat izan zela jakinarazten digu artikuluan, eta Ramonek dio haren aipamen zaharrenak XIII. mendearen hasierakoak direla, Soraluze hiribildu gisa sortu baino lehenagokoak.

Hori guzti hori eta beste hainbat kontu interesgarri aurkituko dituzu www.sorapedia.eus webgunean.



OROIOLORE Hileta zerbitzuak
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

- Zerbitzu etengabea 24 ordutan
- Ez onartu besterik gabe zure asegu-konpainiak esaten dizun hileta zerbitzua, jakin ezazu nahi duzun hileta zerbitzua aukera dezakezula beti.
- Guztiarekin arduratzen gara: eskelak, lorak, errausketak, hilobiratzeak, beilatokia, tramitazioak etab.

617442155 zenbakira deitu eta berehala jarriko naiz zurekin harremanetan

**ESKELA DOAN
PIL-PILEAN HERRI ALDIZKARIAN**

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin eta nire helburua familiar ahalki eta tratunik beroena hurbilekoena ematea izango da.

BERGARAN, Amilaga 27an maribi • 617442 155 • maribi@oroilore.com

2 eta 3 LOGELAKO ETXEBIZITZAK GARAGEAK ETA LOKALAK



%100 FINANTZAKETA
140.000 €-tik



943 12 13 95

www.aukera-inmobiliaria.com

140.000 €ko kreditu batekin, 628,60 €ko hilero kuota finkoa lehenengo bost urteetan.



DES KON TUAK

Soraluzeko komertzioek deskontuak eta eskaintza bereziak egiten dituzte hilero. Eskaintza baliagarria **ekainaren 24tik uztailaren 9ra** arte.

AINHOA ILE-APAINDEGIA Kolorea eta moztu



40€

Lehen
50€

Deskontua
%20

Izena: _____

Tel.: _____

TXOKO KAFETEGIA Etxeko pizzak



Bolognesa

7€

Lehen
8,5€

Deskontua
%18

York+bacon+gazta

6€

Lehen
7,5€

Deskontua
%20

Izena: _____

Tel.: _____

LILURA Aurpegiko tratamendua (C bitamina)



31€

Lehen
44€

Deskontua
%30

Izena: _____

Tel.: _____

KLB6 Munich zapatilak



Deskontua **%50**

Izena: _____

Tel.: _____

zozketa

60 euroko bono bat zozketatuko da hilero. Parte hartzeko, eskaintzaren bat kontsumitu behar da eta norbere datuekin betetako fitxa entregatu.

Azken zozketaren irabazlea: Marina Covarrubias

NIK.
HERRIAN



YO, EN EL
PUEBLO

PERTSONA
HELBURIA

COMPROMISO CON
MAS PERSONAS

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

ENHERRIEN GARAPEN
ETA LANBIDEAREN SAIA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y EMPLEO